



hori minimizatu egiten bada bao bakoitzaren arotzeriaren tratamendu globalean integratuta, eta bao bakoitzaren irakurketa bateratua nagusitzen bada.

Nolanahi ere, eraikuntzaren fatxadak proposatutako erregimenean sartzeko edo kanpoan uzteko erabakia ondorengo C atalean azaldutako baldintzen arabera planteatutzat hartu behar da.

B.- Fatxadako elementu edo alderdi iraunkorrak: harlanduzko horma atalak eta beheko solairuko azpadurak, eta izkinako alaka, hiru aldeetan.

C.- Babesteko eta esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:

\* Izkinako gorputzaren fatxadari buruzko irizpideak, kupula barne dela (Urbietan eta Prim kaleen arteko erpinean dagoen fatxadari dagokio):

- Oro har, gaur egungo konfigurazio arkitektonikoarekin babestuta dago, hau da, eraiki zenekoarekin.
- Kupula berrituko da, haren jatorrizko konfigurazioa, materialak eta xehetasunak kontuan hartuta. Arkuen formetan inskribatutako arotzeria berriak jatorrian eraikitakoaren banaketa formatu bera izan behar du.

\* Gainerako fatxadei buruzko irizpideak (Urbietan eta Prim kaleen aurreko fatxadei dagozkie):

- Lehendik dauden baoen neurriak handitzea baimenduta dago, baoak handitzeko obratzat hartuta, baina fatxadak eraitsi gabe. Aldaketa horiek bat etorri behar dute hasiera batean eraikitako entablamendu eta inposten bilbearekin. Alboetako fatxadetako dekorazio sistema osoa gorde behar da, zerrenden trazadura horizontala eten gabe. Alde horretatik, fatxada horie berrantolaketa kontrolatuak baoen eta bost ardatz bertikalen oinarritzko konfigurazioari eutsiko dio.
- Leihateetan egin daitezkeen jarduketak ondoko hauek dira:
  - Alboko fatxaden balkoiaren azpiko erdiko hiru baoetan aldaketak eginez gero, jatorrizko proiektuaren antolamendu bera onartuko da, lau pilastra hegaletatik igarotzen den inpostaren azpitik baoak dituela. Inposta hori barneko forjatu berriaren altuerara egokitu ahal izango da, eta hiru bao horien zabalera jatorrizko proiektuan marrazturikoraino hel daiteke.
  - Beheko solairuko baoak eta haien azpadurak jatorrian eraiki bezala mantendu behar dituzte, bat izan ezik. Prim kalera ematen duen behe oineko iparraldeko baoa konfiguratu ahal izango da behar den zabalera librean izan dezan; horrela, aparkaleku gisa erabiliko diren sotoko oinetara ibilgailuak sartu ahal izateko.
- Dorrearen ondoko gorputzeko irekidurak, lehen eta bigarren solairuetan, zabalera handitu daitezke, ardatzari eutsita eta alboko kartelak kontserbatuta.
- Desagerturiko mantsarda kurbatuen txapitulak, alboetako bost baoen ardatz bertikalei jarraituta berrituko dituzte, aukeran, bost bakarkako edo 4 binakako eta banakako bat jarrita, konponbide moduan. Txapitula guztiak zirkularrak izango dira.
- Jasodurak baimentzen badira, ez da eskatuko lehenengoaren gainetik kokatutakoak hurrenez hurren atzera emanak ipintzea. Lehenengoak, ordea, atzera emana egon behar du, bere proiektzioak mantsarda babestuetan ez eragiteko.

